

Kaixo, lankide,

Pasa den asteazkenean, hilak 21, Haurreskolak Partzuergoarekin batera Lakuan izandako Mahai Negoziatzailean, besteak beste, horren funtzionamendua, metodologia eta egutegiaren arautzea izan genituen hizpide.

Sindikatuok ekarpen desberdinak egin ostean, zehaztapenak egiteko eta akordioetara heltzeko konpromisoa adierazi genuen. Ondoren, **STEILAS** sindikatuak akordioen eta negoziazioen sinatzaileak Zorione Etxezarraga eta horren idazkaria izateaz gain, Zuzendaritza Batzordeko ordezkari bat ere sinatzailea izan behar dela azpimarratu zuen.

Aurretik dugun lana zein izango den kontuan hartuta, Mahai Negoziatzaileaz gain bestelako mahaiak gauzatzea ere eskatu genuen (mahai teknikoak). Izan ere, beharrezkoa ikusten dugu negoziazioan oinarrituta dauden baina Lan Hitzarmenetik kanpo gelditzen diren gai asko landu ahal izatea eta horretarako espazio arautu bat izatea. Mahai teknikoen bitartez LALa, lanpostu zerrendak (LZ), esleipenak, dotazioak edota baremazioa bezalako gaiak landuko genituzke.

Hortaz, Lan Hitzarmen berriaren negoziazioa abian jarri da. Lehen bilera horretan enpresak ekarpen xumeak egin zituen. Lan Hitzarmeneko lehen 3 kapituluak landu ditu: hitzarmenaren aplikazio eremua, salaketa, luzapena eta antolaketa dagozkionak, alegia.

Halaber, Haurreskolak Partzuergoarekin elkarrizketa eta elkarlana sustatzeko bideak ireki izana balorean jarri nahi dugu. **STEILAS** sindikatuan argi dugu negoziazioa dela adostasunetara heltzeko bidea eta, helburu horrekin, Lan Hitzarmen berri duin baten alde borrokatuko dugu.

Bestalde, Zorione Etxezarraga gerenteak adierazi zigun 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera onartutako soldata igoera gauzatu beharko lukeen txosten ekonomikoa oraindik ez duela Gobernu Kontseilura bidali. Hori egin ezean, gure nominetan ez da igoerarik islatuko, beraz, adi egongo gara.

Haurren matrikulazioari dagokionez, Zuzendaritza Batzordeak atzera bota du orain dela aste batzuk alde bakarrez hartu zuen erabakia (asko izan zineten kezaka guregana jo zenutenak). Haurrak onartzeko araudian hainbat aldaketa txertatu nahi zituen, baina, azkenik, hau izango da aldaketa bakarra: haurreskoletan plazen %85a beteta ez baldin badago, matrikulazioa irekita mantenduko da kopuru horretara iritsi arte. Enpresak horren berri emailez jakinaraziko du haurreskoletan eta web orrian ere argitaratuko du.

Ordezkapenen gaiari buruz ere hitz egin zen bileran. **STEILAS**ek argi eta garbi gogorarazi zion gerenteari ordezkapen guztiak lehen egunetik bete behar dituela eta, burbuilak mantentzeko, beharrezkoa den pertsonal estra kontratatu beharko duela Prebentzio Protokoloak dioena zorrotzasunez bete ahal izateko.

Covid-19ak eragindako egoeratik kaltetuak izan diren familientzako hobari ekonomikoak nola aplikatu aztertzen ari direla aipatu zigun.

Bukatzeko, adierazi nahi dizuegu gure esku dagoen guztia egingo dugula hemendik aurrera ahalik eta informazio gehien zuekin partekatzeko, negoziazioaren diskrezioaren mugak eta informatuta egoteko eskubidea uztartuz.

Euskal Herrian, 2021eko apirilaren 26an.